

20. MADRILEN NESKATO

Egoten zineten etxe horietan, nola... nola zen zuen bizimodua? Bazkaltzen zenuten etxeko nagusiekin batera...?

¡Qué va! ¡Qué va! Dena diferente. Bagenituen, etxe hura zen etxe elegantea, bazuen ate nagusia, han hurrekin pasatzen zen haurtzaina, bakarrik. Gu ez, guk bagenuen bertzea eta igogailuak eta denak. ¡Qué va! Ezta pensatu ere! Eta gureek bizia egiten zuten jangelan eta egongela batean, guk, berriz, sukaldean eta handik ateratzen ginen gu, barruko atea erraten genion. Ez, ez, ez. Ezta pentsatu ere! ¡Qué va! Bu! Beraien buruak goiti jotzen zituzten! Eta gero, irakatsi zidaten niri solasa nola egin erdaraz ere: "Tenga usted la bondad" y "Tenga usted la bondad de sentarse" y así cosas... diferente erdaraz, diferente erdaraz.

Eta, gero, uniformeak, uniforme batzuk zoragarriak, eskularru zuriekin, kofia buruan eta, bueno! Zapata batzuk eta uniformeak izaten genituen beltzak, lepoa ere zuria eta mantal zuri bat, negurako batzuk eta udarako bertzeak, nik izaten nituen uniformeak, zeren, nik banekien sukaldean eta gero, bertze neskatoa genuenak, Donamarikoak, ez zekien, hark nik baino gutxiago erdaraz. Hark bai gutxi zekiela! Nik baino gutxiago zekien hark erdaraz! Nik baino gutxiago, eta gero, nola ez baitzekien hark, telefonoak eta behar bezala hartzeko, haiek bazituzten mania batzuk, nola hartu, eta egiten nuen nik bazkaria prestatu eta ateratzen nintzen sukaldetik eta prestatzen nintzen, bazkaltzen nuelarik. Bertzea gelditzen zen han ontziak denak garbitzen... eta, hiru neskato ginen. Hurrekin joaten zen haurtzaina; hura joaten zen kofia bat zoragarriarekin, kapa urdin ilun zoragarri batekin eta uniforme zuria eramaten zuen. Eta galtzerdi zuri batzuk erosi zizkion eta erran zion:

- Esas medias blancas yo no andaré -erran zion.

- ¿Cómo que no? Pero si van con el uniforme...

- Sí, sí, pero los zapatos he comprado yo -erran zion-. Así que como he comprado yo los zapatos... si me los compra usted los zapatos, pero si no, no andaré.

Eta ez zituen erabili batere galtzerdi zuriak, eta ederki egin zuen.

Luxua bai! Ui, ui, ui! Eta hura altu bat zen, bere kofiarekin eta kaparekin eta altu-altu bat. Eta hura ateratzen zen eta hari igandeak ematen zizkion gehienez libre eta bertze andre bat hartzen zuten. Bai gastua bazen etxe hartan! At... nagusiaren atorrak plantxatu egiten genituen plantxadora batekin. Arropa ere, eskuz garbitzen baitzen dena, ekartzen genuen labandera bat, andre bat arropa garbitzeko ere. Bazen gastua, bai, etxe hartan! Eta gero dirurik gabe gelditu ziren, dirurik gabe gelditu ziren. Niri ez zidaten anitz pagatzen, baina, klaro, bertzeei pagatu behar zieten eta...

Zenbat kobratzen zenuen?

Nik kobratzen nituen han dat... hemen gutxiago, hemen hogeita hamar, hogeita hamar mila pezeta, hemen. Eta han, joan ginelarik, pagatu zizkidan berrogeita hamar.

Urte guztiko lana?

Bai, urte guztiko lana... Hilabeteko, e?

A! Hilabeteko?

Hori hilabeteko! Nahi duzun guztia. Eta gainera, han egon ginen denboran, nik ez dakit zuhur ibiltzen zen edo zer, ez zidan erdia pagatzen! Eta egun batean erran zidan: "Oi, oi, oi! Si tienes algo dame porque no tengo ni chiquita y hoy domingo todo está cerrado". Eta hola hasi ziren, behera-behera hasi ziren.